Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Martin Elgarresta Gabilondo

Bergara, Gipuzkoa (1937)



Aurkibidea

Biografia



Basalgo auzoko Arangurentxo baserrian jaio zen. Aita bertakoa eta ama Buruñao auzoko Ziarreta baserrikoak ziren. Hiru anai-arreba izan ziren, bera erdikoa. Bost urterekin Basalgoko eskolan hasi zen, Migel Elorza maisu oñatiarrarekin. Hamabi urterekin Gasteizko Jesus Obrero jesuiten eskolara joan zen bi urterako. Etxera itzuli eta baserrian lan egin zuen. Esnea, gazta, barazkiak eta su-egurra saltzen zuten kalean. Berrogei urterekin Oñatiko Lana kooperatiban hasi zen eta bertan jardun zuen erretiratu arte. Elorrioko Gazeta auzoko Markiñakua baserriko Pilar Ibarrondorekin ezkondu zen. Alaba bat izan zuten.

Zintak

BER-244

- **Proiektua**: Bergarako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirre, Elisabet - Jauregi , Jose Ramon "Epelde" - Larrañaga, Andoni
- **Data**: 1991-12-22
- **Iraupena**: 55 min
- **Euskarria**: Audio Analog
- **Kodifikatzailea**: Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k)**: Agirrebeña, Aintzane - Unamuno, Arianne

BER-269

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Elortza, Kepa
- **Data**: 2009-10-21
- **Iraupena**: 58 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Basalgo auzoko baserri-izenak

- **Erref**: BER-244/001
- **Iraupena**: 0:03:40. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:03:40

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko baserri-izenak.

Transkripzioa
- Bueno, Mosteittik hasiko gara ala?
- Bale.
- Bueno, basarrixak eingo dittuu lehelengo ta gero errekatxuak eta… Ba, hau bera?
- Bai, Monasteriobide.
- Bueno, baiña zuek hola ez jatzue esaten…
- Guk Mostei.
- Ez, komeni da zeuek esaten dozuen moduan.
- Bai.
- Guk Mostei.
- Mosteittik gora esan dozu…?
- Hurrengua, ba, zera… lehenaoko etxe zaharrak be bai danak hartzen dozue?
- Bai, bai. Bai, bueno, oin dakiuna [edo daona…].
- Beste bat horren gaiñian dao egondakua Kaminburu.
- Bai, hantxe justo gaiñekaldian, ez?
- Bai. Han kurbia bertan badaok, ba, [etxe gaiñekaldian]? Gaiñekaldian daok, horma zaharrak eta ondiok be han jarek. Ta hurrengua gora fanda, [Santiora baiño] Santiotxikixa.
- Egondakua?
- Egondakua. Frontoia daon… hantxe kamiñu kontran zuan. Guk, e… eskolan-ta ibili giñanian artian hormak eta suelua ta baeuzkan artian. Bai, Santiagotxikixa. Gero Santiago bera.
- Santiago bera?
- Maistruan etxia ta sozidadia ta horrek, horrek izena Santiago […].
- Gero etxe multzo bat dao hor…
- Santiago apuntau dozu?
- Bai.
- Gero hurrengua handik segiduta Iribe. Iribe hurrengua.
- Ezkerretara daona?
- E? Bai.
- Gero eskumetara pixkat […]?
- Bertan behera segiduta, ba, ehun bat metrora edo, zera, Gibondo. Horrek be izena Gibelondo edo jaukak. Eztok? Aber zela ipintzen daben…
- Zibondo ipintzen dau.
- Zibondo?
- Ez ein kasu haundirik, zeaittik batzutan geizki dator, e? Ta oso geizki batzutan.
- Bai, bai…
- Basarri batzuk ez dator eta… bastante…
- Hori Gibondo guk.
- Gero hemen geratzen jaku bi, bata bide ezkerretara ta beste bat…
- Beste hiru ondiokan.
- Beste hiru ondiokan?
- Bai.
- Aber, ba.
- Gero gora goiezela, gurera, handik atzera ixo Iribera ta gora gatozela,

ezkerrera, Lonbide.
- Eta eskumetara?
- Eskumetara beran parian, beran parera baiño lehen Gibondo aldera, aurreratxuao Iñarre etxeberri.
- Luzeka bat?
- Bai. Bueno, ez da luzia be. Txikitxuaua, Iñarre-ta baiño txikixaua. Hau dok, eztok, Iñarre? Egon. Hau Lonbide ta hori Iñarre, eztok?
- Bai, balitxeke.
- Bai, bai, horrek dittuk. Eta horrutz hortxe beran etxian kontratik fanda, ba, etxiak, Iñarrek [distantziatzen jotsak] zerai Iñarre etxeberriri paretaz pareta, ba, hamar metro be ez, zazpi-zortzi metro. Bide bat bittarte dabela.

- Gero begiratu ein biharko dou hemen dibujo...
- Bai, hortxe, hortxe. Hori [zein da...] tipo hortara izengo dok, holakua ez dok, baiña.
- Ez... Hau gero guk zertu biharko dou, kuadrau biharko dou...
- Bai, Iñarre etxeberri. Horrek jaukak hortxe bertan zeretik, por ejenplo, hau, kamiñua hau dok, eztok, hemen bittartetik pasatzen dana? Ba, hau Lonbide ta hau Iñarre dittuk. Eta hamentxe bertan kontran, etxe kontran joiak kamiñua horraxe eta hortxe eitten jok etxe kuadrotxua hortxe. Hortxe. Hori [...], holaxe. Ta hemendik beste bide bat joiak, hortik lehenau Egurenera zan bidia.
- Ya, ya, ya...
- Eguren be hor egongo dok. Ta hortik doia bide bat. E? Horren bixen bittartetik pasatzen dok.
- Bale.

2. Basalgo auzoko baserri-izenak

- **Erref**: BER-244/002
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:03:40. **Bukatu**: 00:08:42

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko baserri-izenak.

Transkripzioa
- Eta honek, Iñarrek, berriz, bi bizitzako moduan pegante jaukak Iñarre goikua.
- Iñarre goikua ze aldetara? Bidian aldera?
- E... frentia, frentia kamiñora baten dok dana. Hauxe berau etxiau.
- Hortara? Edo zela ebagitta?
- Hau etxiau holaxe dok dana, Iñarre ta Iñarre goikua dana kuadro baten jak batera. Eta fatxadia Iñarrek hamentxe portala horra eta honek be hortitxik atzetik horraxe zuan lehenao portala. Oin be hor jak ate haundi bat.
- Orduan, bestekaldera ebagitta, ez?
- E?
- Orduan, bestekaldera?
- Etxia zela erdibitzen da? Zati bat Iñarre ta...?
- Osea, kamiño aldetik dauke bixak sarreria?
- Bai. Kamiño aldetik, oin horrek Iñarre goikuak ez jaukak sarreraik be

formal, portalik ez jaukak, baiña lehenaokua labe-txikixa ta haintxe... beheruzkuan fijau nitzan nahi badozue, guenetik hemendik goiazela entradatik Iñarre Iñarre goiko partia dok. Teillatua baten jarek danak, e?
- Bai, bai...
- Bajaukak, goixan teillatua hola [...] bat bajaukak, e? [...].
- Eta... goikua eta bestia, Iñarre?
- Iñarre, bai.
- Besteik barik... Bale. Gero esan dozu bide bat zeuala hemen Gibondotik beherutz basarri bateraiño.
- Bai, bai, Egureneraiñok, bai.
- Bai, hemen lehen... Amutxastegi ipintzen eban mapan, baiña konturatu naiz...
- Amutxastegi gorao.
- ...gaizki daola, zeatik...
- Amutxastegi han be ikusten juat nik. Amutxastei zaharra ta Amutxastei barrixa egongo dittuk hor. E?
- Bai, bai...
- Amustei zaharra...
- Amutxastegi goikua... zela... zaharra esan dozu?
- Bai, Amutxastegi zaharra hor daok ta Amutxastegi barrixa hemen egon bihar dok. Hona, e!
- Epa! Orduan, hau ete da zaharra?
- Bai, hori baleikek.
- Egon...
- Hori bai.
- Hemen daukau beste...
- Hori Gallastei torria. Kamiñua zein dok Basalgotik doiena, por ejenplo? Hau dok, eztok?
- Hauxe ez dakit, ba... Etxoin, e?
- Hamen entradia [...] Basalgotik, gurera hartzen dan lekua ta kruzia...
- Bai, hauxe.
- Hori dok? Gurerakua ta Gallastei torrerakua ez dok hori bestiori?
- Bueno, honetxek dia bidiak. Hauxe izan...
- Hauxe izan biharko dok, eztok?
- Bai, hauxe...
- Bai, bai.
- Hauxe izan leike. Hemen bi txabolatxo edo dare?
- Bai, Egurenguak dittuk horrek, Egurengo txabolak dittuk horrek. Bat oin jausitta jak eta bestia arreglau barri. Iaz arreglau ein juen.
- Eta horren azpikaldian?
- Eguren.
- Eguren, esan douna, bai.
- Amutxastegi ipintzen jok gaizki ipinitta.
- Bai, gaizki ipinitta.
- Eguren bi bizitzakua. Bi bizitzakua zuan.
- Gero bidia jarraittuta, allegatzen gara...
- Bai, kamiñuan azpittik jak Amutxastei barrixa.
- A! Joe, hau be gaizki zeuan orduan.
- Eta gero han goittik behera hori ikusten juat nik Amutxastei zaharra.
- Osea, Amutxastegi zaharra beherao dao barrixa baiño?
- Bai. Horrek eitten jok Amutxastegi barrixa kamiñuan azpikaldetxuan bertan daok. Torrerako kamiñua doian lekuan azpikaldetxuan. Eta Torrerako kamiñua segitzen dok eta handik berrogeta hamar metro hirurogeira hasten dok goittik behera. Alturia kasi berdin honek, ixa-ixa. Hola, ez dok, [linealian], baiña horraiño fan ta atzera hemendik bajatzen dok kamiñua.
- Bueno, zihero gaizki zeuan mapa hau, e?

- Ba horrek holaxe dittuk. Gero etxakiat hau, honek bidiok, bidetxuonek be...
- Estratak be izan leizke, e?
- Bai, holakon batzuk izengo dittuk.
- Estratak be izan leizke...
- Errekia?
- Errekak urdiñez doiaz.
- Bai, eztok?
- Arraixa urdiñak errekak dia.
- Bai. Bai, honen zelaixak eta eitten juek hona errekatxora, goittik behera, hola, orduan ba... Gero Gallastegi. Gallastegi Torria, Gallastegi bestia hemen egongo dok... Bai, bai, hauxe dok. Zaharra hauxe dok.
- Bata ze da Gallastei torria ta bestia Gallastei?
- Bai, Gallastegi bestia, bai.
- Hemen Amutxastegi zaharra ta berrixan artian hola txabola bat edo badao? Agertzen da kuadro txiki bat...
- Bai, honena dok hori, kamiño ondo-onduan.
- Bai. Badauka izenik edo?
- Ez, harek hola...
- Apartekorik ez dauka?
- Ez, txabolia dok eta [hantxe]. Amutxastei zaharrekua dok hori. Honena dok hori.
- Bueno, Gallastegi torre esan dou, Gallastegi be bai... ta bidiau Basalgotik ez dao beste iñorako biderik?
- Ez, Gallastei torrian akabatzen dok kamiñua.

3. Basalgo auzoko baserri eta mendi-tontorrak

- **Erref**: BER-244/003
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:08:42. **Bukatu**: 00:13:44

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia; baserri-izenak eta mendi-tontorrak.

Transkripzioa
- Bueno, oin ze ein leikeu? Bueno, gero bestekaldera botata...
- Guria.
- Bai. Nun zeuen? Hauxe. Zela esaten jatzue zuek?
- Arangurentxo.
- Eta ez dao besteik Basalgon...?
- Ez.
- Hau zer zuan?
- Hau da txabola bat edo...
- Bai, bai, hori dok... Hori izango dok.
- Gutxi gorabehera ipinittakua.
- ... Elizalde hamen, eztok?
- Bai.
- Hori dok Beittiko txabolia. Hementxe [...], hortxe tontorrian ezkutau justu-justuan eitten dok. Hori Beittiko txabolia, Kasimirona dok hori. Beste bat markatzen jok hor? Gorauan bajeuan, ba, beste bat, baiña haura ya jausitta jak eta ez jok markauko. Keruta markauko jok, ba, [...] beste bat,

gure txabolia goixan hori.
- Hemen?
- Hau izango dok, eztok? Hemen gein-geiñian jak hori, bai. Ta beste bat hementxe zuan, hola, [ez dakik], hona... Hemen nun markau dok txabolia? Hau, eztok? Ba, hementxe zuan hola Elizaldeko txabolia. [...] ondio paretak [...].
- Oin, pixkat zentratzeko tontorrak esango dittuu, mendi-tontorrak, hemen inguruan darenak?
- Bai.
- Bata dao, ba, vamos a ver, Mosteittik eta Lesarri aldera...?
- Larrei.
- [...]
- Lehen be apuntauta daukazue hamen...
- Bai, baiña badaezpada... Auskalo lehen zela esan doskuen, oin ez daukau hemen hori ta... Bueno, hau apuntauta daukau. Munabe gaiñian daon...?
- Larramendi haura.
- Badaezpada apuntau ein bihar dot, hori uste dot danok berdin [...].
- Bai.
- Gero hemen inguruan daon beste tontor bakarra da... Aber, hau Arangurentxo bada, hementxe daona.
- Garbe, Garbe, bostehun ta... [treinta metros].
- Zortzi.
- E?
- Bostehun ta zortzi.
- [Quinientas treinta], han buzoi bat zuan ta...
- A, bai, e?
- Bai. Buzoia han dao oindio baina...
- Bai, ikusitta daukat buzoi haura. Eta beste bat Garbetik han Sagarrerreka aldera edo dao. Beste... hola, lau-laua, baiña gain bat da.
- Albizuri. Zera izango dok, Gallastei torrera baiño lehen, eztok?
- Bai.
- Postia lineia ta pasatzen dana?
- Hori da.
- Bai, Albizuri.
- Bale. Gaiñik hola besteik bai? Bai, hemen daukau beste bat Elgetako mugia dana. Azulatik...
- Bertan gaiñekaldian, eztok?
- Bai.
- Larrosin izengo dok hori. [Azpikaldera...] jak mugako harrixa be hantxe beheratxuauan daok Elgetara pasatzen dana.
- Larrosindik gero dator Azula gaiñian, hola...?
- Beizuko zabala esaten jakona gaiñian beste bat. Geiña ez dok haura, lautada bat. Gero Azkonabittara ixotzen jok gora haura gaiña esan nahi dozue?
- ?
- Ez dakit, ba. Bai, Azkonabitta hemen dao... Beizu, Azula.
- Beizu ta esan douna Larrosin zein dok?
- Hau mugia, mugia. Azula, Beizu, Azkonabitta. Bittartian dauzkau bi tontortxo nahiko lauak.
- Bat dok Gaztandolako etxaburua han Goiko gaiña esaten jakona eta Beizuko laua esaten jakok honi.
- Hau lautada hau.
- Bai, hau lautada hau.
- Igual dana izengo da Beizuko zabala?
- Izena hori... honi beste bat esaten jakok, hor , hemen ingurutan esaten da, Larrosiñetik bajatu eitten gaittuk hola lautadara pixkat, Boketia. Kruze

bat, gaiñera.
- Bai, hori da.
- Ez dakit nundiko izena dakarren, baiña...
- Baina hori, egon ginan Agarrein egon ginan.
- Agarre Goikuan ta?
- Han be ezautzen dabe.
- Bueno, orduan. Ta gero esan dou monolitua eta daukana. Ta gero ia azkenengo baztarreraino junda daukuu Azurtza, Azurtzatik eskumetan Bergaretxe gaiñian beste lautadatxo bat.
- Kamiñua ta laua daon haura?
- Bai.
- Hari e, [...]

4. Basalgo auzoko toponimia

- **Erref**: BER-244/004
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:13:44. **Bukatu**: 00:15:18

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia; baserri-izenak eta mendi-tontorrak.

Transkripzioa
- Hori Goimendira allegatzen garanian...
- Goimendixan hori...
- [...]
- Beste batekin dudan ibili ziñetela, Olakortaako gaiñian [...] eztok, izena? Intxuzabaldik eskumarako [zeakin...] Topinburu edo [...].
- Hori da, hori da.
- [...] beste izen bat daola artian ta hori Gaztandolak jakingo jok. Beste bat Kurutzia ta be pasau dittuzue horra Larrosiñera bidian. Hori ez jok markatzen, eztok?
- Ointxe markauko dou.
- Bai?
- Ez jaku komeni ezer ahaztuta lagatzerik eta... Kurutzia hori nun egongo zan?
- Bidia [... horra], Kiruta, Kiruta, lehen esan juau, ba, gure txabolia?
- Apuntau Kiruta.
- Garbe, Garbe, Kiruta.
- Hau txabolia, ez?
- Bai.
- Bale. Ta hemen dago Larrosin...
- Larrosin, bai. Horrako bidia behetik gora doiana zein dok? Hau izan biherko dok, eztok? Kirutatik hasi, Kirutako txabola-txabolan jak kruzia, bat Gaztandola aldera, harutz...
- Harutz, bai...
- Bai. Eta bestia hemen gora hasten dok segiduan, Larrosin aldera.
- Bai, hemen ez dao, baiña...
- Hor egongo dok. Ta Kurutzia, por ejenplo... Larrosin hau dok, eztok?
- Bai.
- Ba, hurrengo bajadia, e? Larrosin holaxe “tak” ixotzen jok, eta hurrengo lautadian hemendikaldeko puntia dok Kurutzia.
- Hementxe gutxi gorabehera.

5. Basalgo auzoko toponimia

- **Erref**: BER-244/005
- **Iraupena**: 0:03:32. **Hasi**: 00:15:18. **Bukatu**: 00:18:50

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia; tontor eta sailen izenak.

Transkripzioa
- Kurutzeondo.
- Bale. Kiruta... Kiruta txabolia, ta inguruko lautadiak badauke izenik?
- Ez Kiruta jaukak horrek. Bai. Gero beste bati esaten... handik Kurutzera bittartekuai Goikolaua esaten jako beste zati bati, Elizaldeko sail bati, lautadatxo bat jak hola. Goikolaua.
- Bale.

- Albizuri, gero Gallastegitorre aldera eitten dau beste, hola, makurrune bat.
- Bajadatxua, eztok?

- Bai, bastante laua eta…
- Bai.
- Harek ez dauka aparteko izenik?
- Ez, Albizuri dok haura inguru gaintxua ta… Beherao bai. Gallasteitorretik Ibarrolara bittartian jak beste holako zer bat. Hari Malkorra esaten jotsek.
- Bai, Gallasteitorretik Ibarrolara bittartian?
- Bai.
- Gain bat?
- Bai. Ba, gain txikixa dok, baiña lautadatxo bat eitten jok hola. Ibarrolatik-eta beittuta tontortxua dok eta hortik lautadatxo bat ya handik behera hasten dok ya. Bide baten… bide-bidia joiak bertan gaintxotik behera.
- Bi dauzkau ta bixetatik edozein izan leike. Hau…
- Gallasteitorria, por ejenplo, zein dok? errekatxo bat…
- Gallasteitorria hau.
- Bai. Ibarrola?
- Hemen. Ta hau da errekia. Erreka bixak hemen juntatzen dia.
- Plaentziatik datorrena hau dok, eztok? Behetik gora. Hau Gaztandolara doiena izengo dok ta hori bestaldera doiena.
- Ez, ez, hau da Gaztandolara doiana.
- A! Hau dok Gaztandolara doiana?
- Bai. Oin apuntau Gaztandola hemen nabil ta. Erreka bixak hemen bat eitten dia. Malkorra edo hori zein da hau ala hurrengua?
- Malkorra hemen izen bihar dok.
- Baiña sakona da?
- Ez, gaintxua.
- Horretxek ez dosku kuadratzen.
- Ez, e?
- Ze dau Gallasteitorretik gertu dago ala…?
- Bai, urrin be ez. [Gallasteitorretik], ba, bostehun bat metro?
- Bostehun metro?
- Holakotxe bat.
- […] errekia hau bada…
- […].
- Lautadak-eta markatzen jittuk? Zeoze bai, eztok?
- Bai, lautadak dia arraixa artian separaziño… hueko haundixa daonian. Hemen dago bat dexentia. Hor bide bat doia erdittik…
- Ba, hoixe dok, ba, holako luzengia dok lautadatxuoi ta hoixe izengo dok, ba!
- Honi… zelan esan dozu?
- Malkorra, Malkorreko gaiña esaten jotsek horri.
- Bale. Hamen eskumetara edo dao hola sakonuna bat nahiko zera…
- Bai, hari be hona Plaentziako regatara behera juaten dok… ura hasten dok hor behien hor zuluan, Gallasteitorretik ostien zulo-zuluan bertan.
- Bai, bai.
- Ba, hori izengo dok, ba.

6. Basalgo auzoko toponimia; errekak

- **Erref**: BER-244/006
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:18:50. **Bukatu**: 00:20:20

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia; errekak.

Transkripzioa
- Bueno, urekin hasi garanez, errekatxuen izenak bai? Hamen Mostei... bueno, hamen Lonbide... Mostei alde hontatik [...] doiana...?
- Iturriberri... Iturriberri hor...
- Iturriberri... Kontuz, Iturriberri beheraiño doiana ala hemen goixan ertetzen dabena?
- Behian esaten jako Iturribarri esaten jakok... hau dok Fagorreko deposituak izango dittuk, eztok, honek?
- Bueno, Fagorra bera da hau, depositтuak hemen.
- A! Bale. Ta hau dok Lonbidetik doian errekia.
- Hori da.
- Hau dok bestia [Aiztizabalgo] gure alderaotik doian errekatxua.
- Bai, bai.
- Ba, Iturribarri, gero, hauxe, hauxe. Honi esaten jakon Iturribarri, honi. Hau dok [Aiztizabaldik] doian errekatxua, hau Lonbidetik-eta bajatzen dana eta hau besteau Larramendi aldera ixotzen dabena. Eta honek juntatzen dian lekuan behian beheko lautadatxua Iturribarri hori dok. Hau izengo dok, 98 hau, eztok?
- Bai, hori Iturriberri dao ipinitta hor. Bale. Hori be eindda. Gero, zuenetik eta beherutz doiana? Han gero bat eitten dala beste batekin gure itturraldian?
- Bai, hori Lonbidetik... Lonbideko basua. Hamentxe gure piñudixa etorritzen dan lekuan entradatik behera hasten dok sakon-sakonian behera.

7. Basalgo auzoko toponimia; errekak

- **Erref**: BER-244/007
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:20:20. **Bukatu**: 00:23:31

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia; errekak.

Transkripzioa
- Zuena hau da.
- Bai, hori dok etxetik doian barrankua. Hau dok bestia horra sartzen dana. Eta itturrixa hauxe izan bihar dok, ba, hamen itturri ingurua eztok?
- Bi eitten dia... [...] hamentxe...
- Bai...
- [...] adar bixen izenik bai?
- Horrek izena honek... [...] izen-izen fijoik hola...
- Eta behekuai?
- Hori Arangurentxoko errekia.
- Ya bi einddakuan behera
- Beherakua [...].
- [...].
- Zela esan dozu hori dala?
- Arangurenerreka esaten jako horri. Hor zeretan dao depositua ta [...].

- Bale. Gero, hemen daukau bat Esperantzan urtetzen dana, bi zatittan eitten da ta... buf!
- Bai, hor Agarre goiko aldera-ta juango dok hori bat eta...
- Bat bai. Olañeta ta...
- Olañeta aldera hori, eta hau, berriz, bestia hona Elizalde bittartera [...].
- Hori da. Horren izenik bai?
- Horrek Artizerrekia esan izen jakok, baiña beherakua ta dana...
- Bale. Bueno, gero hemen Lesarri edo Mekolalde aldera ertetzen dana? Honek? Lesarri, hau Belastegi... [beste] erreka honen izenik bai? Hortxe Mekolaldera bertara urtetzen dana.
- Hori lehen indda ez daukazue, gaiñera?
- Bai, baiña bueno... [...]. Ta gero han Goimendiko zerak... Plaentxiara datorren haundixaua ta gero bi itten dana Ibarrola aldera ta Gaztandola aldera? Honek izenik bai adar honek eta?
- Honek zonia... hau, porejenplo... zein dok Gaztandola esan douna?
- Gaztandola hau.
- Gaztandola, bai. Gero honutz datorrena hau dok Larrosinpera sartzen dana, eztok? Larrosin nun esan juau hemen?
- Larrosin hau.
- Hau, eztok? Hau Sostra, Sostra errekia.
- Sostra errekia.
- Sostra, bai. Petrittik be sartzen dok – Petri hor lehen esan doun zonatik- ta bestia Sostra esaten jako honi aldioni. Bueno, hau Gaztandolatik hona, honi. Ta horrek Sostra... Sostrako errekia hori.
- Bale. Ta Ibarrola aldeko barri?
- Ez...
- Eta erreka haundixa Plaentxiara doiana?
- ... entzunda bai, baiña iñoiz, baiña oin ez jaukat nik hola... Sagarrerreka hori, Sagarrerrekia dok hori erreka haundixa, izen.

8. Goimendiko (berez, Basalgo auzoa) baserriak

- **Erref**: BER-244/009
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:24:25. **Bukatu**: 00:25:22

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Goimendiko (berez, Basalgo auzoa) baserrien izenak.

Transkripzioa
-Goimendiko basarrixak eingo dittuu? Ondiokan ez dittuu esan eta. Bueno, Gaztandola esan dou...
- Behetik gora hasitta lehelengua Ibarrola.
- Ibarrola...
- Gero gora segidu ta Bergaretxe kaminpian, bi bizitzakua zana.
- Bai.
- Gero goikua Elgeta partia izango dok, eztok, Azurtza?
- Bai, baiña, bueno, apuntau eingo dou hori be.
- Azurtza muga-mugan jak. Elgeta partia uste juat dala.
- Bai, izatez bai. Bestekaldia da.
- Gero bestia Arraotz be bai ostera-ta, baiña...
- A! Hor ermitta bat edo agertzen da...

- Bai, bai.
- Ze...?
- Santiago.

9. Goimendiko (berez, Basalgo auzoa) baserriak

- **Erref**: BER-244/010
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:25:22. **Bukatu**: 00:27:12

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Goimendiko (berez, Basalgo auzoa) baserrien izenak.

Transkripzioa
- Gero beste holako txabolatxo bat beheratxuauan bajak han, sozidade moduko bat be, hor kruzia eitten dan leku-lekuan, Azurtzara ta bestia Intxuzabalera-ta hartzen dan kamiñua. Intxuzabal nun daok?
- Intxuzabal apuntau...
- Hau izango dok, ba, kruzia...
- Ez, hau, hau, hau. Hemen, hemen, hemen.
- Hori Basetxia, Basetxia esaten jotsek horri izena. Sozidadetxo bat. Bertako... Eibarren bizi [...].
- Bergaretxe eta Intxuzabal bittartian beste bat geratu jaku.
- Bai, azpikaldian, Lezeta. Bi bizitzakua dok hori be. Iñor ez dok bizi, baiña...
- Intxuzabal... Gero beste pare bat...
- Gero aurrera segidu zeretik, Intxuzabaldik, ta Olakorta lehelengua. Ta gero beherao Kostei.
- Hau ipini barik zeuan eta besten batekin kristonak einda hementxe ipini giñuan. Ez dakiu ondo daon edo...
- Bai, bai. Ba, ez jak gaizki. Hau Olakorta, eztok?
- Bai.
- Bale. Hortxe dok. Igual [...], baiña hortxe.
- Jausitta dao ala zutik dago hau?
- Ez, zutik jak.
- Zutik dao, e?
- Bertan ez nok ni egon aspaldixan, eztok? Baiña... Igual teillatua edo zeoze jausitta eukiko jok, baiña hemendik beittuta, behintzat, goittik-eta beittuta, ondio zutik jak. Lehen piñu artian tapauta zeuan baiña oin piñua ointxe bost bat urte edo sei bota juen piñudixa eta atzera sartuta jak, baiña oin bista-bistan jak hor goiko kurutzatik eta. Ondio zutik jak behintzat.
- Hemengo saillen baten izenik bai, alde hontakoik?
- Ez, horko [geiña] nik ez jakixat nik. Hauraxe... hor... esan ziñuen lehengunian be dudan ibili ziñatela ta horren buruan dauana, hor goixan, hari entzun eindda nik Topinburu edo esaten dotsela, baiña hola fijo esateko ez jakixat.

10. Basalgo auzoko toponimia Elgetako muga inguruan

- **Erref**: BER-244/011

- **Iraupena**: 0:03:12. **Hasi**: 00:27:12. **Bukatu**: 00:30:24

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia Elgetako muga inguruan.

Transkripzioa
- Gero, bueno, hau ahoz... oin ahoz... ahozkuak batzen gabiz, baiña ibili gara liburu zaharretan-eta begiratzen artxibuan, ta agertzen jaku hamen Arangurentxoko lurretan baso batzun izenak “Aitzeta” bukatzen dienak.
- Aitzeta? Amarraitzeta be bai. Geure basua be Amarraitzeta dok, hemendik gora […] han goixan daon bat.
- Hori nun zertu biharko giñuke?
- Kirueta […].
- Kiruetako txabolia?
- Bai.
- Arangurentxo…
- Gero, esan douna, bidia gora doiana?
- Bai.
- Hau Goikolaua apuntau juau, ba, nunbaitten?
- Hauxe.
- Bai. Ba, Goikolautik jausten dok, hola, Agarregoiko aldera ta Elizalde aldera, hona, honaxe.
- Hau izango zan…?
- Aber, Agarregoikua?
- Agarregoikua hemen.
- Ta Larrosin hau, eztok?
- Bai.
- Ta Goikolaua nun esan juau? Hamen.
- Hauxe.
- Ba, hori basuoi guk izena hori esaten jauuna Amarraitzeta hauxe dok, hementxe bertan jausten dana azpikalde […] bat, holan. Bai. Hori bazeukazuen izena, e? Zerian, aiuntamenuan edo zertuta ala?
- Papel zaharretan agertzen da.
- Aitzeta, eztok?
- Amarraitzeta.
- Amarraitzeta.
- Ta beste bat be bai: Bostaitzeta.
- Bostaitzeta, e? Bostaitzeta? Hori…
- Bueno, ez dauka…
- Zerak, Luisek-edo ez zotsuen esan Agarregoikuak-edo horren berri?
- Amarraitzeta uste dot entzunda zeukala…
- Horren basua be gurien kontran-ta jak ta […] Amarraitzeta eukiko jok harenak be.
- Ba, igual harek honi emon zotsan Amarraitzeta zati honi. Hemen daukau bat borobilduta, ez dakit zeittik izengo dan. Igual berak honi emon zotsan. Beiratu leike, Eli? Badaukau hemen papelak? Ekarri dittuu? 88, 2.
- […].
- Elgeta partia izengo da, baiña…
- Urpunta, Urpuntua.
- A! Urpuntua.
- E?
- Urpuntua esaten dotsa harek.

- Urpuntua?
- Bai.
- Bai, baiña hori Agarregoiko aldera uste juat daola, e? Hori neuk be entzunda jaukat. Nun daon fijo ez, baiña Luisi-ta entzunda.
- Ta 23a? 23a? A! Hau Larrosin bada… Honi Larrosin basua esaten dotsa Agarregoikuak.
- Bai, azpikalde horri ta…
- Bai. Honi Urpuntua.
- Urpuntua?
- […] berak ya… hemendikalderakua ya bera ez zan sartzen.
- Gero beste bat badaok hor Lindaria esaten jakona.
- Bai, hauxe.
- Hori goittik behera doian…

11. Basalgo auzoko toponimia

- **Erref**: BER-244/012
- **Iraupena**: 0:05:02. **Hasi**: 00:30:24. **Bukatu**: 00:35:26

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia; tontor eta sailen izenak.

Transkripzioa
- Bai, [mintxo] bat joiak goittik behera Artizeraiño doiena. Hori ez jakixat,ba, nundik datorren hori. Lehenau Elgeta ta Bergara separatzen ei zuan hortik eta horren zeretik etorriko dok seguramente hori.
- Seguramente bai.
- Bai. Gurian aittajunak… Artizen etxe bittartian ei zuan hor zera.
- Justo. Ta hementxe dare ta […] gaiñetik doia…
- Bai, hori holaxe joiak. Lindaria hortik etorritako izena izango dok horri esaten jakona.
- Lindaria eta, zera, Amarraitzeta bittartian badao ezer ala dana da Lindaria?
- Lindaria horri gaiñorri ta gero Amarraitzeta hori, ba, sakoneratxuao, Kirueta aldera eitten jok, Kiruetako txabola aldera, nik esaten dotenori, Amarraitzeta hori.
- Gero beste bi sakonuna bittartian dator beste hola… zer bat, hegi buru bat. Kiruetako txabolak baiño…
- Eta gurera bittartian?
- Bai.
- Kanteria esaten jakona beste bat. Hau, "por ejemplo", Beittiko txabolia lehen billau dozue, ba, hor guretik doiena, guretik harutz doiena?
- Hauxe?
- Hori dok, ez dok?
- Bai.
- Ba, hortik gora urtetzen jok… bai, hona Goikolaura ta hor Kanteria – harrixa etaratzeko lekua zuan, gaiñera – ta Kanteria esaten jakok horri.
- Gero beste karobi bat edo badao…
- Karobixa? Karobixak bi be bai, hiru be bai badakit nik karobixak nun daren.
- Bat ondio bastante zutik daona.
- Zein zonatakua?

- “Vamos a ver”…
- Beittiko txabolonduan jak bat.
- Ez, ez, hemen, hemen, hemen. Lehenengo kurban eskumetara hartzen da Garberaiño juteko oiñez. Beste… estrata bat dao.
- Gurera baiño lehen?
- Iñarre, ezkerrera hartu ta lehelengo kurban eskumetara estrata zahar bat gorutz doiana.
- Albizurira doiana?
- Ez, ez Garbera doiana.
- A! Handik gora doiana?
- Bai.
- Bai.
- Hauxe da, hauxe.
- Bai, hori da, hori karobixori hortxe gure zeran geiñian, basuan gaiñekaldian jak hori.
- Izenik badauka?
- Ez. Garbe barrenian jak… Izena basuak Garbebarrena jaukak horrek.
- Basuak Garbebarrena daka?
- Bai. Horren guen horrek. Eta hor beste bat -ez jakixat izena ipinitta daukazuen- Basalgotik hor geintxo bat, tontortxo bat, eitten jok, ba? E… gure [kamiño] aldapian geiñekaldian. Horraxe direkziñuan, karobira direkziñuan doiena. Zabaletagaiña esaten jotsek hari.
- Zabaletagaiña?
- Zabaleta esaten jotsek. Holako tontortxo bat.
- Arangurentxo, Lonbide…
- Hau Lonbide. Ta hori aldapa guena ta hor estartia hor hasiko dok gora, ez dok?
- Hemendik gora, hemendik gora.
- Hau dok gure kamiñua honaiño datorrena?
- Bai.
- Bai. Ta lehelengo bidia dok, ez dok, gora?
- Bai.
- Bai, hauxe dok gora doiana. Ba, hamen geintxo hau, hauxe izengo dok, hor gorako… Hoixe dok Zabaleta.
- Bale. Gero lehen esan dozu baso bat Lonbidebaso edo esan dozu lehen. Hori nun…?
- Lonbidebaso daok horri kamiñuorri jarraittu gurera bidian…
- Zuenerako bidia… Hauxe.
- Bai. Eta hau… hau bidia dok, ezta, goittik behera?
- Bai.
- Ba, hementxe hasiko dok goittik behera. Hau errekatxua… hau gure errekia, hau bestia… Bai, hamentxe. Hauxe dok Lonbidebasua, zuen itturriraiño bajatzen dana, Izarreetxebarriko itturrira bajatzen dana goittik behera.
- A, igual apuntauta eukiko dou. Badaezpada, badaezpada apuntau eingo dou.
- Bale.
- Klaro, Lonbideko basua dok ta Lonbidebasua esaten jakok horri. Beste bat bajak izena daukana hor geure basua be. Kanposko zera jaukak izena… Kanpos esparrua.
- Aiba! Nun dao hori?
- Hori?
- Arangurentxo hemen dao.
- Bai.
- Garbe…
- Arangurentxo hemen… hamentxe inguran, hola. Garbe hau dok, ez dok?

- Bai.
- Ba, Garberako faldan eitten jok hortxe bertan gora. Kanposko esparrua, hortxe inguruan. Bai. Gurian esaten juen Kanposkuak-edo ganauak ebaltzen zittuela edo, ez dakik? Kanposko esparrua esaten jakok. Izena be hala jaukak basuak: Kanposko esparrua.
- Hori entzun barik neukan.
- Bai, hori […], eskrituretan be Kanposko esparrua ipintzen jok. Bai.
- Beste bason bat…?
- Beste izena beran ondoko batek beste batek jaukak Intxaurreta be bai.
- Intxaurreta ze aldetara?
- Intxaurreta Basalgon apuntau dozue? Basalgon gurera hartzen dana, Gallasteitorrera hartzen dan lekua dok […] Intxorreta esaten jakona.
- A, bai, apuntau… 68 dauka apuntauta, balitzake hau izatia. Badaezpada apuntau eingo dou berriz.

12. Basalgo auzoko toponimia

- **Erref**: BER-244/013
- **Iraupena**: 0:01:34. **Hasi**: 00:35:26. **Bukatu**: 00:37:00

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia; tontor eta sailen izenak.

Transkripzioa
- Hori ze da Intxaurrondo?
- Ez, Intxorreta.
- Intxorreta. Ta guk basua daukau beste bat hamen Intxorreta esaten jakona horretxen azpixan, karobi horren-ta azpixan. Esan doun… lehen… hortxe beheratxuauan.
- A, hori beste Intxorreta bat da?
- Bai. Hori geuria izengo dok seguramente, e! Ez… ez…
- Igual da, hori be apuntau ein bihar da.
- […] intxorrak igual egongo zien lehen ta…
- 130.
- Gero, Kirutako itturrixa apuntauta daukazue?
- Ez. Kirutako txabolia hemen dao…
- Bai. Ba, hau dok, eztok, behetik doian errekia, sakona, gora?
- Bai.
- Ba, iturrixa hortxe daok guen-guena [urtetzen daben lekua] horixe dok errekian hasieria. Kirutako itturrixa.
- Bale.
- Itturrixa zuan lehenao […] ta oin jak Basalgora eruan dok ura.
- A, bai?
- Bai. Urte mordua dala. Oin be iturritxua oin zerakin pulsadoriakin jak, baiña…
- Bueno. Beste baso bat, Lapikobaso edo ez dao?
- Bai, Lapikobaso hori zeraldera jak, Gallasteitorre aldera.
- Gallasteitorre aldera?
- Bai, Egurengo txaboleta ondua dok hori.
- A, bai, hemen dao, apuntauta dao.
- Lapikobaso.

13. Basalgo auzoko toponimia

- **Erref**: BER-244/015
- **Iraupena**: 0:00:57. **Hasi**: 00:39:45. **Bukatu**: 00:40:42

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia; tontor eta sailen izenak.

Transkripzioa
- Gero, Gallasteitorre inguruan badao, hola, aparteko tokirik? Han Osintxu ta... Gallasteitorretik eta Osintxu aldera, hola, mendi haundi bat badao, ba, oin...?
- Sasibeltz. Hari Larro... zera... Krabeliñaitz edo izena uste juat daukala, eztok, harek izetez?
- Hala esaten...
- Bai, Krabeliñaitz.
- Batzuk hala esaten dabe, bai.
- Ta zona hari Sasibeltz esaten jotsek.
- Danai?
- Han falda hari haruzkuai bai, behintzat, ostera dauana, Plazentzia aldera, honutz...
- Sail handixa, ez?
- bai, Sasibletz. Basalgo aldian eta hor esaten jotsek Sasibeltza.

14. Basalgo auzoan sartzen diren baserriak

- **Erref**: BER-244/016
- **Iraupena**: 0:04:41. **Hasi**: 00:40:42. **Bukatu**: 00:45:23

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko baserrien-izenak. Mugak non dauden. Basalgo auzoan sartzen diren baserriak.

Transkripzioa
- Bueno, gero, Basalgo auzua... ze basarritzuk sartzen dia Basalgo auzuan? Zeatik hor...
- Basalgo auzuan...
- ... inor ez dakit oso ondo [...] .
- Basalgo [hasten] dok hor... Basalgo bera, Santiago, izetez hasten dok Lesarriboluan.
- Lesarri boluan?
- Bai, Mekolalden.
- Horrekin be dudak euki giñuzen. Basalgo... - Lesarri bolua dala ta ez dala- Basalgo zek erabakitzen dau, kamiñuak ala errekiak? Lesarri bolua...
- Kamiñuak ez jok erabagiko, errekiak erabagiko jok, errekiak.
- Eske Osintxu ein giñuan entrebista danetan Lesarri bolua Mekolalde zala eta gero Mekolalden ein giñuanian haura Basalgo zala. Ta...

- Hor, Basalgoko zeretan, behintzat, nik beti entzun juat Lesarri bolua lehen-lehenao Basalgo [esaten] zala beti; beste Lesarrixak be bai ta Lesarri bolua be bai.
- Badauka bere... bere [izatia].
- Itxuria badauka...
- Normala izango litzake...
- Eske Mekolalde ez dok auzua izetez itxuria ta.
- Hori da beste bat.
- Hori dok. Horreaittik. Hori lehelengo jatorrixa seguramente eukiko jok, ba, Basalgo izengo zuan ta Mekolalde partia igual izango zuan Osintxu zati bat eta hola egongo zuan hori partiduta. Hortik ekarriko jok horrek bere zera. Mekolalde ez dok auzua itxuria ta.
- Santiago esan dozu...
- Mekolalde izengo dok izena ferrokarrilla ein zanekua, Mekolalde.
- Bai, enpalmeko zera...
- Bai.
- Klaro, Mekolalde han bi baserri dare: Mekolalde torria ta Mekolalde [...] ta gehixao ezebez, "se acabó".
- Basalgo auzuai beste izen batekin be esaten jako, ez? Santiago auzua edo...?
- Santiago auzua.
- Gauza bera da?
- Bai. Eta gero Basalgoi auzo moduan agregatzen jakona, Goimendixa, Basalgora pertenezitzen zuan. E? Auzo txikixa moduan edo, ba, ez jakixat zela, baiña Basalgo. Basalgok serbitzen juan haura elizia-ta euanian be danak Basalgok eitten juan [...].
- Goimendixa 2xan.
- [...] apuntau dozu?
- A, bai. Hau zelan? Santiago edo Basalgo auzua. Ta Goimendi dia, ba, horretxek: Gaztandola, Bergaretxe, Lezeta, Intxuzabal, Ibarrola, Olakorta ta Kostei.
- Bai.
- Ez dao besteik?
- Ez.
- Ta hori da, ba, Bergarako mugak ya Plaentxiaraiñok, Eibarreraiñok eta...
- Eibarreraiñok enpalmatzen da.
- Bale. Ta gero hemen, hau, Oxanguren aldia-ta hori Basalgo ala...?
- Basalgo... Oxanguren Osintxu esaten juen lehenao.
- A, bai?
- Bai.
- Joe, bakoitzak hemen gauza bat esaten dau Oxangureni buruz.
- Bai, hori, entzun jittuat nik lehenao be batzuk Osintxu dala, beste batzuk Basalgo dala...
- Oin ez dot uste Osintxu danik.
- Ez, oin Basalgora uste juat daola hori. Hemengo aiuntamentuko zeretan ta Basalgora. Ziardei nora jak?
- Ziardei Osintxu uste dot.
- Osintxu.
- Uste dot baietz.
- Bai, lehen, behintzat, hola.
- Baiña Oxanguren ez.
- Oxanguren Basalgora. Baiña Oxanguren be entzun juat nik Osintxu dala be bai, lehenao Osintxukua izeten zala, gero beti Basalgon egon dala...
- Ta gero Arimendi-ta Basalgo dia?

- Ez, horrek San Anton auzua [horrek]. Mostei hasten dok lehelengua Basalgokua.

15. Basalgo auzoko toponimia; sailen izenak

- **Erref**: BER-244/017
- **Iraupena**: 0:01:29. **Hasi**: 00:45:23. **Bukatu**: 00:46:52

Gaia(k):

- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia; tontor eta sailen izenak.

Transkripzioa
- Larreittik eta Lesarri aldera, badauka izenik harek?
- Basarri bat zuan han [...] Lesarrittik Basalgora bittartian bide baten azpi-azpikaldera, handik Teillerixara bittartian, basarri bat zuan Iribe-etxeberri.
- Bai.
- Hori egongo dok apuntauta, eztok?
- Bai, esan zoskuen. Baezpada apuntau eingou berriz be. Ta handik eta Larrei eta Lesarri alderako zati harek.
- Horrek neuk be, ez jakixat beste izenik daukenik.
- Bertan be ez zoskuen esan [...] izenik. Sail haundi xamarra da baina.
- Bai, bestela Jesus Marik jakingo juan horko, Lesarriko...
- Ta Mosteittik eta Larramendi aldera, badau hor e...
- Ez, Larramendi belaxe jak eta. Urkitza beste bat, Basalgotik Aiztizabalera bittartian beste bat esaten jakona Urkitza.
- Errekia?
- Ez izena.

16. "Izaldixa" barruan sartzen ziren baserriak

- **Erref**: BER-244/019
- **Iraupena**: 0:03:09. **Hasi**: 00:48:03. **Bukatu**: 00:51:12

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Euskara » Bilketa linguistikoa » Toponimia

Laburpena:
Basalgo auzoko toponimia. Gaur egun San Juanen sartu arren, lehen zonalde bati "Izaldixa" (Irazabaldegia) deitzen zitzaion. Honen barruan sartuko lirateken baserriak.

Transkripzioa
- Gero, beste auzua edo auzo-unia... hor... iñok be ez daki, Casimirok gogor eitten dau, baiña...
- Zera, Izaldixa?
- Bai.
- Onbre! Izaldixa sagraua dok. Oin San Juanera jakek dana emonda hori izenez behintzat aiuntamentutik, baiña... Ze esaten jok Casimirok?
- Joe, harek Izaldixa. Harek txapan be tatxauta dauka San Juan be ta...
- Bai, eztok?

- Onbre!
- Bai, ba, etxia be Irazabal ta Izaldixan zeak dittuk eta, Irizabal [...].
- Ze basarritzuk izango zian horrek izatekotan, zerak, Izaldixa?
- Izaldixa? Ba, Aizkar ya San Juan dok. Izaletxebarrin hasi, Beittixa, Izal, Izal haundixa eta gero Sakona...
- Itxoin, Izal haundixan apuntau... 32. Izal haundixa eta sakona.
- Sakona, bai. Ta Elizalde.
- Elizalde.
- Eta Artizak.
- Artizak be bai?
- Ta Atxoteixak.
- Atxoteixak be bai?
- Artizak bi, hemendikaldekuak Izaldixak, e? Bestiak ez. Eta guria be bai Izaldixa zuan lehen. E?
- Bai, goraiñok.
- Bai. Oin kamiñua-ta hortik daukaula, ba, ya gu Basalgo moduan [...] garek, baiña guria Izaldixa zuan, bidiak be hortik eta dana.
- Bai, lehengo bide zaharra...
- Bai. Honetxek, horretxek [dittuk]: Atxotei bixak, Artiz bixak, lau, Beitti bixak, sei, Izaletxebarri zazpi, Izal zortzi, Sakona, beatzi, Elizalde hamar ta guria hamaika.
- Eta ermittia. Ermittia edo...?
- Bai, Santikutz.
- Bale.
- Hori Elizaldekua ta eindda eukiko dittuzue, eztok, behekuak-eta?
- Bai, bai.
- Ortuburua ta, [... izena]. Eztok? Elizaldetik gora gurera bittartian.
- Ez. Ortuburua?
- Bai. Hor depositua badaok, ba, Elizaldetik gora lehelengo depositua ein dan barrixa ta?
- Bai.
- Horri Ortuburua esan izen jotsau guk beti.
- Bale. Hor [Artizabal] depositua edo... bueno, Fagorran depositua [...eta daren] alde horri?
- Ez... hori... Gerooko izen bat bajok, baiña hori ez dok... originala ez dok. Hor Urpartilekua esaten jakok hari gaiñai, baiña Urpartilekua seguramente izango zuan ura eruanda jauken hamen ta handik [...] izena edo... Bastante lehentxuaokua dok hori, baiña...
- Urpartilekua, e?
- Urpartilekua, bai.
- Hori nun...?
- Zera, Fagorran deposituak daren lekuan esaten jakok horri.
- A, bai, e?
- Urpartilekua.

17. Gasteizko eskolan izandako bizimodua

- **Erref**: BER-269/006
- **Iraupena**: 0:02:46. **Hasi**: 00:09:42. **Bukatu**: 00:12:28
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:
Gasteizen egon zenean, barneko ikaslea izan zen. Gerran hildako militarren umeak eta Espainia osoko ikasleak zeuden han. Beren artean ondo konpontzen ziren, nahiz eta liskarren bat egon. Eskolak zer egitura zuen azaltzen du. Gasteizen egon zen bitartean, noizean behin joaten zen etxera bisitan autobusez, edo gurasoak etortzen zitzaizkion bisitan berari.

18. Etxean buruhausteak janariarekin

- **Erref**: BER-269/007
- **Iraupena**: 0:01:42. **Hasi**: 00:12:28. **Bukatu**: 00:14:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Etxera itzuli zenean, gosea zegoen oro har. Baina beraiek baserrian ez zuten goserik nabaritu, baserrian landutako janariarekin nahikoa baitzuten: ganadua eta baratzea zituzten. Ama plazara joaten zen baratzeko produktuekin. Esnetan ama eta izeba ibiltzen ziren.

19. Etxeko idiak

- **Erref**: BER-269/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:14:10. **Bukatu**: 00:16:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:
Zer abere zituzten aipatzen du. Idiak etxeko lanetarako erabiltzen zituzten, eta nolakoak izaten ziren aipatzen du.

20. Egurra nola lantzen zuten

- **Erref**: BER-269/009
- **Iraupena**: 0:03:01. **Hasi**: 00:16:00. **Bukatu**: 00:19:01
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Egurra nola lantzen zuten azaltzen du, gero saltzeko.

21. Ikazkintza

- **Erref**: BER-269/010
- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:19:01. **Bukatu**: 00:19:48
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:
Bere aita eta aitajauna ibili ziren ikazkintzan, baina bera ez. Ikaztegiei buruz hitz egiten du.

22. Ardiak

- **Erref**: BER-269/011
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:19:48. **Bukatu**: 00:21:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:
Ardiak ere bazituzten. Eta haiekin lortutako produktuak amak plazan saltzen zituen. Ardiak zer zelaitan izaten zituzten azaltzen du.

23. Basoak

- **Erref**: BER-269/012
- **Iraupena**: 0:01:13. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:22:23
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:
Basoak eta zelaiak nola lantzen zituzten azaltzen du.

24. Ura baserrian

- **Erref**: BER-269/013
- **Iraupena**: 0:00:49. **Hasi**: 00:22:23. **Bukatu**: 00:23:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:
Txikia zenean, baserrian bazegoen ura, komunean izan ezik.

25. Argindarra baserrian

- **Erref**: BER-269/014
- **Iraupena**: 0:04:48. **Hasi**: 00:23:12. **Bukatu**: 00:28:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:
Argindarra ere bazeukaten, eta nondik zetorren azaltzen du. Argindarraren zentrala zegoen, eta gauez bakarrik ematen zen argindarra. Zentraleko ardurak inguruko baserrien artean nola banatzen zituzten azaltzen du.

26. Auzolanak

- **Erref**: BER-269/015
- **Iraupena**: 0:03:18. **Hasi**: 00:28:00. **Bukatu**: 00:31:18
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Uraren eta argindarraren instalazioak auzolanean egin zituzten. Zer auzolan egiten zituzten aipatzen du: adibidez, gari-jotzea. Oso ondo pasatzen zuten egun horietan.

27. Garia soroetatik kanpo

- **Erref**: BER-269/016
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:31:18. **Bukatu**: 00:32:56
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:
Garia soroetatik zergatik kendu zen azaltzen du. Beraiek erabiltzen zuten errotak nola funtzionatzen zuen kontatzen du.

28. Baserriko menua

- **Erref**: BER-269/017
- **Iraupena**: 0:01:43. **Hasi**: 00:32:56. **Bukatu**: 00:34:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:
Bere etxeko ohiko jatordua babak eta txerrikia izaten ziren. Ardia ere jaten

zuten. Eta afaltzeko, porrusalda edo porru-patatak jaten zituzten askotan. Gaztainak eta taloak ere jaten zituzten.

29. Aisialdia lagunekin

- **Erref**: BER-269/020
- **Iraupena**: 0:02:53. **Hasi**: 00:37:22. **Bukatu**: 00:40:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Kirola » Futbola

Laburpena:
Gaztetan zer lagun zituen, non ibiltzen ziren kontatzen du. Futbolean jokatzen zuten, Bergarara erromeriara joaten ziren...

30. Gidabaimena Eibarren

- **Erref**: BER-269/024
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:43:53. **Bukatu**: 00:44:43
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak

Laburpena:
Motorrerako gidabaimena Eibarren atera zuen.

31. Gizon-probak

- **Erref**: BER-269/028
- **Iraupena**: 0:02:44. **Hasi**: 00:51:16. **Bukatu**: 00:54:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:
Gizon-probak zer ziren eta nola egiten ziren azaltzen du. Proba horietan ibiltzen zen gizon bat aipatzen du.

32. Gerra osteko gose garaiko kontuak

- **Erref**: BER-269/029
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:54:00. **Bukatu**: 00:57:11
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

- Lanbideak » Polizia
- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:
Gose garaia izan zenean, beraiek ez zuten goserik pasa. Errazionamenduko ogia nolakoa izaten zen, eta harekin zer egiten zuten aipatzen du. Garai hartan, errotak itxita egoten ziren denboraldi batzuetan. Baina beti aurkitzen zuten tranpa egiteko modua. Gerora, irin-fabrikara joaten ziren, gariaren truke irina lortzera.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-22

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com